

IRAGARKIA

166. ALDIZKARIA - 2025eko abuztuaren 21a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK LEKUNBERRI

Eraikinak birgaitzea arautzen duen Ordenantzaren aldaketa. Behin betiko onespena

Lekunberriko Udalbatzak, 2025eko maiatzaren 29an egindako bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Eraikinak birgaitzea arautzen duen Ordenantza.

Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu. Beraz, eraikinen birgaitzea arautzen duen Ordenantzaren aldaketa behin betiko onetsi da, eta testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Lekunberrin, 2025eko abuztuaren 18an.—Alkatea, Arkaitz Goikoetxea Arriola.

ERAIKINAK ZAHARBERRITZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Helburua.

Honen bidez, etxebizitzak zaharberritzeko Ordenantza aldatzen da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen (2023ko ekainean), Lekunberriko herritarren egungo behar eta eskarietara egokitzeko.

2. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea Lekunberriko Udalak ematen dituen laguntzen araubide juridikoa arautzea da, laguntza horiek hiri-berroneratzeko jarduerak sustatzera zuzenduta daude, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta udalerri eraginkorrago eta jasangarriago batean aurrera egiteko:

2.1. Lekunberriko udal-mugartearen barrenean dauden higiezinak zaharberritzeko egiten diren lanak, eraikin horiek 50 urte baino gehiago badituzte.

2.2. Alokairuko etxebizitzak eraikitzea, edo erosteko aukera duen alokairukoak.

2.3. Laguntza, sute baten ondorioz erreta gelditzen den etxebizitzari edo eraikinari.

2.4. Laguntza, irabazi asmorik gabeko erakundeek egindako obrei.

2.5. Irisgarritasuna eta segurtasuna, erabiltzeko orduan.

a) Irisgarritasunean hobekuntzak dituzten eraberritze-obrak, baldin eta horien helburua bada sarbidea errazteko oztopo arkitektonikoak kentzea.

2.6. Etxebizitzaren eta eraikinen energia-eraginkortasuna eta jasangarritasuna.

a) Eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzea, 20 urte baino gehiago baditu, berotzeko edo hozteko energia-eskaria murrizteko fatxadan, estalkian, babestu gabeko behe-solairuetan edo inguratzaile horren edozein paramentutan ekintzak eginez, isolamendu termikoa hobetuz, hutsarteetako arotzeriak eta beirak ordeztuz, dagoeneko teilapean dauden terrazak itxiz edo beirak jarritz, edo beste batzuk eginez, gailu bioklimatikoak, fatxada estaliak eta abar instalatzea barne (estalkiak) eta itzala sortzekoak.

b) Energia sortzeko ekipoa edo energia berriztagarriak (eguzki-energia fotovoltaikoa, biomasa, aerotermia edo geotermia) erabiltzeko aukera ematen dutenak instalatzea, betiere eraikinaren energia konbentzional termikoaren edo elektrikoaren kontsumoa murrizten badute. Hor sartuko da energia berriztagarriko edozein teknologia, sistema edo ekipamendu instalatzea, hala nola eguzki-panel termikoak eta aerotermiako soluzio integralak klimatizaziorako eta ur bero sanitariorako, etxebizitzek eskatutako ur bero sanitarioa produzitzen laguntzeko, edo klimatizazio-instalazioetarako ur beroa produzitzea. Neurri horiez gain, ibilgailu elektrikoak kargatzeko ekipoa instalatzea ere sartzen da.

Ez dira diruz lagunduko aldi berean eraikinean egiten diren beste obra batzuk, ordenantza honetan adierazitako helburuetara zuzen-zuzenean bideratutakoak ez badira, ezta energia eraginkortasuna edo irisgarritasuna hobetzen ez duten mantentze-lan edo konponketa puntualak ere.

Honako jarduketak hauek ere ez dira diruz lagungarriak izanen:

a) Eraikin berrietan egindakoak.

b) Lehendik dauden eraikinetan egindako esku-hartzeak, baldin eta eraikitako azalera, bolumena edo eraikigarritasuna handitzen badira.

c) Lehendik dauden eraikinetan egindako esku-hartzeak, baldin eta, horrekin batera, eraikinaren erabilera aldatzen bada.

Eskaera aurkezten den unean, laguntzaren xedeko jarduketek kasuan-kasuan aplikatu behar zaien indarreko araudia bete beharko dute, baita eskatzen diren betebeharrak ere, eta behar diren lizentzia eta baimen administratiboak edukiko dituzte, horrelakorik behar izanez gero.

3. artikulua. Onuradunak.

Jabe guztiak izan daitezke aurreko artikuluan deskribatu diren laguntzen onuradun, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Lekunberriko Udalarekiko betebeharrak fiskalak ordainduta izatea.

b) Udalean aurkeztea dagokion lanetarako proiektu teknikoa eta eskatutako agiri guztiak, besteak beste, fakturak eta obraren benetako kostuaren ziurtagiriak.

c) Eskabidea betetzea.

d) Biztanleen Udal Erroldan bizilagun gisa inskribatua egotea.

4. artikulua. Edukia.

Laguntzei esker, 2. artikuluan adierazitako jarduketetan eta instalazioen gaineko zergan %30ko salbuespena aplikatuko da. Onuradunak gehienez ere 5.000,00 euro jaso ahal izango ditu.

5. artikulua. Prozedura.

Laguntzen onuradun izateko, eskabide bat aurkeztuko da Udalean, 3. artikuluan aipatzen diren baldintzak betetzeari buruzko zinpeko aitorpenarekin batera. Dokumentazioa aztertu ondoren, Udalak EIOZaren behin betiko likidazioa egingo du eta bertan emandako laguntza aplikatuko da. Halaber, obrak emandako lizentziari egokitzea eskatuko da: Udalaren baimenean sartzen ez diren obrak egiten diren kasuetan, ez da laguntzarik aplikatuko.

6. artikulua. Indarraldia.

Ordenantza hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Iragarkiaren kodea: L2510992